

{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Hilotza Mantxako kanalean, migrante bat Panteoian

Ur nahasiak izanen dira ezinbestean ondoko hilabeteetan frantses Estatuan. Presidentetzarako hauteskundeetarako bost hilabete eskas falta direnean, lehiakide guztien izenak ez ezagututa ere, eztabaidaren ardatz ilunak dagoeneko mahai gainean daude. Aste honetan bertan ezustekorik gabe azkeneko hilabeteetan eztabaida politika lokaztu duen eskuin-muturreko predikatzailerik ikonoklastak bere hautagaitza ofiziala egin du. Aldez aurretik egutegian finkaturik zuen data horretara, ordea, espero baino egoera zaurgarriagoan heldu da Eric Zemmour. Marra gorri gehienak zapaldu ostean, Bataclanetik Marseillara, amildegia gertutik begiratu dio lehen aldiz telebista platoetatik etengabe hauspotu duten pertsonaiak. Hala, ubelduraren bat edo beste jaso du barneak astintzeko dohaina duen hizlariak, iritzi inkestetan estropezu eginez. Horregatik, marketinetik harago, Paris inguruetan biharko antolaturiko ekitaldiak bestelako zentzua hartu du. Neurri batean, apoteosia irudikatzeko asmatutako mitina gainbehera egiteko beldur soilak eragin dezakeen uxaldia saihesteko ekimen bilakatu da. Ur bizietan sartuta dagoen kanpainurrearekin jarraituz, eskuin klasikoak zer jokalarirekin lehiatuko den soilik ez zer joko egingen duen behar du, gaur bertan, hautatu. Duda-mudatan ibili den eremu politikoak zirt edo zart egin eta biharamunean hautagai bezala lehenengo meza ospatuko du, hain zuzen, Zemmourrek.

Baten batek zalantza bazuen, eskuinaren eremuan zalaparta sortzea lehentasun du polemistak kosta ahal kosta iparrorratza zorabioan duen hautesleria kontserbadore netoak bere alde egin dezan premia baitu. Izan ere, zarata neurgailuak sabaia jo ondoren sinesgarritasuna eraikitzeke abagune berria markatu behar zuen «gertaera», bat-batean, zertxobait desitxuratu da.

Lanbroaz, beraz lanjeraz, beteriko kanalaren itxura hartu du eguzkiak goiena jo behar zuen mitinak.

Mantxako itsasartean izandako gertakari lazgarriak antibalioen gaineko eztabaidaren antzukeria biluztu du. Ahoberoak mututu egin dira, une batez, ur hotzetatik heldutako garrasia hain da dardaragarria.

27 bat migrante hil ziren beren txalupak hondoa jo ondoren demokrazia liberalen iruditegian odolez ordaindutako askatasunaren ikur den Britainia Handiaren eta frantses Estatuaren arteko itsas pasabidean. Hilabete luzetan migrazioaren gaineko gezurren biltegia leporaino betetzen lagundu duten iritzi emailak bat-batean isildu egin dira, hamarkada luzetan Calais-en etengabe pizturik atxiki duten su txikia infernua bilakatuko ote den beldur.

Gizatasunaren apologia soilak nekez estal dezake pertsona migranteen ibilbidea oztopatzeko europar agintariak garatu duten politikak utzitako orbana

Ordurako, gizatasunaren apologia soilak nekez estal dezake migrazioaren ibilbideak nola edo hala oztopatzeko itxurakeria handiz europar agintariak jorratutako politika. Horregatik, britainiar lehen ministro Boris Johnsonen emandako erantzun bihozgabea ezin da Emmanuel Macronen erantzukizun faltaren mozorro bilakatu. Agerikoa baita Mantxako kanalean inork salbatu nahi ez zituen migranteak hil zirela. Nahiz eta egun gutxitara Josephine Baker estatubatuar etorkinari sor zitzaion tokia egin Panteoian, Parisen. Arrazakeriaren aurkako borrokalaria, Erresistentziaren laguntzailea, artista, beltza, emaztea. Apropiazio politikorako joerak sortzen duen nekea aitorturik, mito baino gehiago, helduleku izan dadila. •